

Abarrak

Mikel Asurmendi

Ikimilikiliklik!

Zai Zoi Bele. Zuzendaria: Eriz Zapirain.
Orio Produkzioak (Euskal Herria, 2009).

BAGA: *Zai Zoi Bele* Orio Produkzioak-en dokumental sorta duzu. Eriz Zapirain-en gidaritzapean eta Amets Arzallus kazetariaren mintzoetan apailatua. Sei egunetako bidaiaren bidez, *Ez dok amairu* talde abangoardistak 1965etik 1972ra esperimentatutako hainbat arteren espresioa eskaintzen dute sei dokumentalek.

BIGA: Egileek lau urtez lan fina eta delikatua harildu ondoren, ETBk eskainiko du abendu honetan. *Ez dok amairu*, artisten hitzak eta musikak elikatutako espresio kulturalaz gain, hil-hurrena sentitu zuen herri honen fenomeno soziala izan zen.

HIGA: Herriak hil-hurrena sumaturik, hiltzoria iragartzen zuen Txalaparta –edota Belatxa kantua, esaterako– bilatu zuten gazte erne haiek: Artze anaiak, Laboa, Lertxundi, Lete, Lekuona, Iriondo, Irigarai eta enparauak lurpean zegoen euskal nortasuna hauspotzen saiatu ziren.

LIGA: Euskal kontzientzia klandestinitatean eta sotoetan biltzen zen. Gitarrak euskaraz kantzea ofentsa eta laidoa zen, alta. Abertzale elizkoi

zaharrek ez zituzten askatzaile berriak maite. Mixel Labeguerie-ren doinuek gazte haiek inarrosi zituen ordea. Gazteek hil-hurren zegoen arima, oihu bilakatu zuten: “Gu gira Euskadiko gazteri berria”. Iturriotz tabernatik Aurrera tabernara bitarte, sotoak laga eta Bellas Artes, Kursaal, Victoria Eugenia edota Gaiarren agertzera ausartu ziren.

BOGA: Euskal kantagintzak estetika berria behar zuen eta hura jakintsuen magaletan bilatu zuten. R. M. Azkuek gure mitologian aurkitutako hitzez eta Jorge Oteizaren “bedeinkapena”z, euskalduntasunak pairatzen zuen malefizioa uxatu zuten: “Erljioak salbatu ezean, arteak salbatuko gaitu” pentsatu bide zuten *Ez dok amairukoek*.

SEGA: Ohi denez, *malefizioen* eta *malofizioen* ondorioz, gazte haiei ere sorginen ibilerak asmatu zizkieten. *Ez dok amairukoek* Akelarrea berpiztu omen zuten Larraitzen. Harrezkero, zaharrak berri herri zaharreko gaztedi berriarentzat!

ZAI ZOI BELE: Gainerakoa ezagutzen duzue: Baga, biga, higa, laga, boga, sega, Zai, zoi, bele, harma, tiro, pun!

Xirristi-mirristi gerrena plat,
Olio zopa Kikili salda,
Urrup edan edo klik ...
ikimilikiliklik...



TABAKALERA



Barru

Contacto

Euskara | Français | English

Hasiera


Kultur fabrika

Jarduerak

Arkitektura

Irudiak

Komunikazioa



www.tabakalera.eu

ELKARREN BERRI IZATEKO / OTRA MANERA DE VISITARNOS